

han-hemen

Danimarkako lehen ministroa telefono gidan dago

Danimarkako lehen ministro Poul Nyrup Rasmussenen telefono zenbaki propioa telefono gida publikoan agertzen da. Munduko buruzagi bakarra da telefono zenbakia gidan jarri duena. Haatik, errekorren Guinness Liburuan jarri dute haren izena. Liburuan ipintzen duenez, «Danimarkako gobernuburuak berak hartzen du telefonoa zenbaki horretara deituz gero».

Pilotu brasildar bat omendu egin dute, hamahiru urte igarota

1988an, diotenez, Fernando Murilo de Lima e Silva hegazkin pilotuak atentatu bat ekidin zuen. Bera gidatzen ari zen hegazkina bahitu egin omen zuten, eta asmoa hegazkina Brasiliako Gobernuak jauregiaren kontra botatzea zen. Baina Murilo de Lima aurre egin zion bahitzailerari, eta «tragedia ekidin». Orain, Dorre Bikien kontrako erasoaren ondorengo giroak eraginda, pilotu brasildarra omendu egin dute.



JEFF KOWALSKY / EPA

Exekutiboentzat

CEO enpresako exekutibo bat, John Rivers, 'Executivechute' izeneko jausgailuarekin. Larrialdietan etxe orratzetatik salto egiteko sortu dute jausgailu hori, Dorre Bikien kontrako irailaren 11ko eraso gogoa.



TORU YAMANAKA / EPA

Auto enpresako presidentea, pilotua eta robota, elkarrekin Tokion

Argazkikoak Honda etxeko presidente Hiroiyuki Yoshino, 1 Formulako pilotu Takuma Sano eta Asimo robota dira; Tokion egiten ari diren motor erakusketan elkarrekin egon ziren. 27an bukatuko da hitzordua.

Hilekorik sekula izan ez duen emakume bat ume batez erditu da

Hilekorik sekula eduki ez duen 54 urteko emakume galiziar batek umea eduki zuen herenegun, Santiagoko ospitalean *in vitro*

bidez eginiko ugalkortasun tratamendu baten bidez. Tratamendua haurdunaldiaren lehenengo hiru hilabeteetan egin diote. Maria Brañas da emakume galiziarra, eta zesarea bidez eduki du umea.

hilberriak



Pedro Goya Zozaya
JAUNA

Atzo bil zen, urriaren 24an, Arantzan, 76 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Haren emaztea: Inaxi Iparraguirre: seme-alabak: Gabi eta Xabier Etxague; anai-arrebak: Martin (Maritxu Arozaren alarguna), Paquito (P) eta Paulina Arozena, Antonio eta Olga, Juan (P), Esteban, Florentino eta Anttoni Goyeneche, Amparo (Jesus Iraolaren alarguna); ezkon anai-arrebak: Bernardo (P) eta Maria Sasiain, Bautista eta Justa Mutuberria, Vicente (P), Antonio (P) eta Maria Mariezcurrena, Valentin eta M^a Dolores Alzugaray, Dominica eta Antonio Alzugaray (P); bilobak: Jon, Maider eta Itxaro; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete, eta arren etor zaitezela GAUR, ORTZEguna, arratsaldeko BOSTETAN, ARANTZAKO ANDRE MARIAREN ZERURATZE paroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

ARROSARIOA 12:30ean izango da familiaren etxean. HELBIDEA: LARRETA kalea, ONTSENEA.

OHARRA: Hileta ondoren, gorputz laguntza kanposantura egingo da.

Arantzan, 2001eko urriaren 25ean



Itziar Ligos Rivas

Udazkenaren haizeak
dakarren negarra
mila bibotz minbera
oinaze bakarra
betirako gure gogoan.



LAUDIO IKASTOLAKO
GURASO, IKASLE ETA
LANGILEAK

2001eko urriak 25



Itziar Ligos Rivas

Delika-Amurrian bil zen (Araba) 2001eko urriaren 24an, 45 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Haren senarra: Epi Zurimendi Galdos; semeak: Ibai eta Beñat; ama: Gabriela Rivas (Felix Ligosaren alarguna); neba: Felix; ezkon anai-arrebak, ezkon-gurasoak, Epifanio Zurimendi eta Ana Galdos; osaba-izebak, iloba, lehengusuak, lagunak eta gainerako ahaideak.


Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete, eta arren etor zaitezela GAUR, OSTEGUNA, 2001eko urriaren 25a, arratsaldeko SEIETAN DELIKAKO SANTA MARIA parrokian gorpua bertan dela egingo diren hileta elizkizunetara. Aldez aurretik, mila esker.

HELBIDEA: DELIKA-AMURRIO (ARABA)

2001eko urriak 25

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222



Kabi Goitia

(X. urteurrena)

Urteak joan, urteak etorri.
Hamar jada.
Urteak joan, urteak etorri, gizartea
euskarara murgildu nabian.
Egunen batean
zuk eta guk amestutako
Euskal Herri euskalduna
lortzeko.

MATXITXA AEK
EUSKALTEGIKO LAGUNAK

2001eko urriak 25